

Arnaldo laguna,

Bakearen eta berraskidetzearen saria jasotzeagatik zoriontzen zaitut. Pribilegio eta ohore handia da niretzat hau egitea.

Estatu espainiar eta frantseseko herri guztiek, eta Euskal Herria berak ere, egun bizi dituzten bake baldintza berriak azken hamar urteotan burututako eztabaida eta lan politiko itzelaren ondorio dira. Eta hau, neurri handi batean, zu bezalako buruzagien ikuspegi politiko eta lan zintzoa dela medio lortu da.

Zuek lagundu baituzue gai politiko garrantzitsu guztiei soilik bide baketsu eta demokratikoen bitartez heldu eta eztabaidatu ahal izateko baldintzak sortzen.

Bildu, Amaiur, orain Sortu, eta orohar ezker abertzalearen arrakasta historikoak, azken berrogei urteotako lan politikoaren ordaina izan dira. Berriki izan dituzuen hauteskunde mailako aurrerapausoak Euskal Herrian eta Espainian paisaia politikoa aldatu dute.

Euskal Herriaren askatasuna eta independentzia lortzeko bide baketsu eta demokratiko berria amesten, marrazten ausartu zinen. Horregatik saritu zaituzte orain.

Nire desira onenak konpartitu nahi ditut prozesu baketsu eta demokratiko honetan konprometituak dauden guztiekin, Euskal Herria eta Estatu espainiar eta frantsesaren artean, berdintasunean, traba eta kanpo esku-hartzerik gabe autodeterminaziorako eskubidea gauzagarri egingo duen harreman berri bat eraikitzen ari zareten guztiokin.

Gerry Adams

Sinn Féin-eko presidentea